

Loiola: berriz ere kapitain espainola

SAN INAZIO «vasco universal» bat omen da. Arana Goiri ez. Unamuno bai.

Bigarren: egia da, gauzak historian ikusi behar dira. San Inazio gipuzkoarra zen, Gipuzkoa orduan Gaztelari zegoen lotuta, Nafarroaren aurka ihardun zen. Ez gaitezen eror anakronismoetan.

Halere, aro horretan ez naiz partikularzki aditua, baina justifikazio horiek berak izan litezke anakronikoak. San Inazio Iruñean, ez dut uste gipuzkoar bezainbatean zebilenik, Juantxo-kume gisa baizik. Beste historia bat da, edo: bi historia diferente da hori.

Orain, biak dira oso gure historiak, eta historia nola irakurri, hori dugu kontua. San Inazio nik uste dut bietan dela gure miseria historikoaren ordezkari jator-jatorra: probintzikerien gure historiarena eta tradizionaliki beti arrotzu egin izan zaizkigun elite eta klase nagusia.

Aita Estefaniari buruzko argitalpen berri batean pozez eta harriturik irakurri dut. Olabiek «Euskal Herria, morroi herria» esan omen zuela. Historiaren irakurketa hori egin dutenak, asko izan dira gero. Gure jende hobereña beti urrutiko Gortean eta Espiritu Santuen zerbitzuan gailendu da. Kanpokoan morroi, etxeko nagusi ordez.

Egin dugun historia daukagu, ez egin izan apika nahiago genukeena. Eta gure historian San Inazio horixe badaukagu, beste baten

ordez, horrek ez du bueltarik eta seguru asko sentidorik ere ez du gure historiako arazoak inoren kontu pertsonalak bezala planteatzen ibiltzek.

Problema, beraz, ez zait iruditzen, San Inazio bera zer ibili zen. Problema, gu zer gabiltzan, da. Eta gu zer gabiltzan da, erakusten duguna, historia nola irakurtzen edo adjektibatzen dugunarekin.

Gaur eta hemen zer esan nahi du zehatz-

PROBLEMA EZ DA SAN INAZIO ZER IBILI ZEN. ARAZO, GU ZER GABILTZAN, DA.

mehatz basko unibertsala izate horrek? Zein da basko unibertsalen zerrenda hori? Zer nahi da San Inazio zerrenda horretan sartuz?

Nik uste dut, betiko anbiguitatera jokatu, beste ezer ez: San Inazio, euskalduna bai, baina «unibertsala». Alegia, ez «beste horietako».

Eta hori da nire galdera: zeintzuetakoa ez? Begira bedi, aurreko urteotan zeintzuen omenetan erabili den kontzeptu hori.

Kontzeptuek aldian-aldian eta tokian-tokian sozialki lortzen duten balioa edukitzen dute. Orain eta hemen Roman Garate, Gotzon Garate, Patxi Altuna, Aita Estefania, ez bait dira kontsideratzen basko unibertsalak. Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu ere ez bait dira kontsideratu izan Lagundi horretakoak.

Hori slogan espainolista bat da. Francoren denboran kapitain espainol bat zen: ez da ezer kanbiatu, demokraziarako kamuflatu bakarrik egin da.

Lutero alemana da, sekula ez da izan «aleman unibertsal» bat. Ez zegoelako kamuflaje beharrik. San Inaziok ere, euskalduna izan nahi badu, nahikoa du besteok bezalakoxea izatea (hemen denok gara unibertsalak). «San Inazio, vasco», kito. Edo bestela ezer ez eta bake santua. Ez dago bere baskotasuna zertan aipatu, justu euskaltzaleen eta abertzaleen burlarako izan den adjektiboarekin jantzita izan behar badu. Euskaldunok San Inazio euskaldun soil-soil geu bezalakoxe bat nahikoa genuke, beste trapurik gabe gainetik. Ez kapitain espainola, ez PSOEko afiliatua eta ez El Liberal-eko partaide ilustratua. Hots, mesedez ez «universal-a». «San Ignacio, un vasco santo», edo «San Ignacio, un santo vasco»: beste dena fuera. Eta sloganak aldez aurretik euskaraz asmatzen badira, hobeto.

JOXE AZURMENDI
IRAKASLEA

Gizarte Segurantzaren erreforma: hiritar izatetik Estatuko bezero izatera

GIZARTE Segurantzaren erreforma administrazioaren kontestua baino zabalagoa den batean kokatzen da, eta erreformaren arazoia Gizarte Estatuaren krisian dago.

Gizarte Estatuak kapitala eta lanaren arteko hitzarmena isladatu zuen; horren bidez lanak kapitalismoaren logika onartu zuen, langileen beharrianak behar bezala aseko dituen gizarte politikaren ordez.

Gizarte Estatu 70eko hamarkadan sartu zen krisian, munduko ekonomi krisiaren ondorioz. Kapitala eta lanaren arteko hitzarmena hautsi egin zen, eta Estatuak autoritarismoarekin erantzun zuen, honen ezaugarri nagusia gastu publikoaren helburua ordezkatzea izanik: gizarte helburua, enpresa produktibitateak ordezkatu zuen.

Kontestu horretan kokatu ziren Gizarte Segurantzaren erreforma progresiboak. Erreforma horiek argi eta garbi nahi dute Gizarte Segurantza merkatura zabaldu eta honen logikapean jarri. Horrela, gehiago ba-

nantzen dira Estatu-Gizarte eta Administrazioa-hiritarra, langilea kontsumitzaile bihurtuz eta hiritarra bezero.

Estatuak, Gizarte Segurantzaren erreformarekin, honen iharduera krisiaren egoerara egokitu nahi du, horretarako honako joera bikoitza erakutsiz:

Alde batetik, Gizarte Segurantza pribatizatzea eta merkatuaren jokuan sarrerazi, lehia ahalik eta handiena izan dadin. Horrela ulertu behar da 'produktibitate plusa' funtzionarioen ordaintza sistema sartzea, eta baita ere oraintsuki 'hiritar' kontzeptua 'bezeroagatik' aldatzea.

Bestetik, langileari ematen zitzaion babesa desagertaraztea. Hori bide desberdinetatik lortzen du: 'Lan Beltza' izatea erraztuz eta plantilen malgutasunarekin.

- Gizarte politika aldatuz: prestazioak urritu eta kotizazio-epea luzatzeko eskatuta (26/85 Legea), eta Gizarte Segurantzaren sistema paraleloa ezarrita: 'pentsio fondoak' deiturikoak, prestazioak biltzen dituztelarik

ekonomikoki indartsuenak diren taldeetan. Gizarte Segurantzaren erreformaren bitartez, publikotasunaren pribatizazio prozesua gertatzen da. Eremu publikoa (hiritarra), pribatu bihurtzen da (bezeroa), eta era honetara aldatzen da asistentziaren logika (hiritarrek ordaintzen du gastu publikoa) seguroarengatik (bezeroa da ordaindu behar duena, eta zenbat eta gehiago ordaindu, orduan eta gehiago tokatzen zaio eta exigitzen du).

Gizarte Segurantzaren erreformarako proposamen politikoa, merkakutako logika abiapuntuz ez onartzea da eta prozedura alternatiboak irekitzea. Egungo gizarte politika aldatu egin behar da, hau da, asistentziaren logika seguruaren gainetik ezarri, beharrezko egoerata mugatuz prestazio sozialak. Azken finean, solidaritatera gehiago produktiora baino (soldata, kotizazio epeak...).

JESUS MORENTIN
GIZARTE SEGURANTZAKO LAB-EKO DELEGATU SINDIKALA

BERRIAK ZIRI



BENJAMIN NETANYAHU
EL PAIS
1991-11-21

«Saddamek, onik ateratzen bada gerratik, irabazi egingo du, eta irabazten badu, botere arabiar guztiaren lotura izango da»



ALFONSO ARMADA
EL INDEPENDIENTE
1991-11-21

«Mugicak eta biok, mando-hazkuntzari buruz hitzegin genuen Leidan»



KARMEN GALLASTEGI
EL MUNDO
1991-11-21

«Espainiako ekonomiak izugarritzko eragina du euskal ekonomian»



INAKI GOINCOETXEA
DEIA
1991-11-21

«Ez naiz Kanpo Arazoetako lehenengo euskal ministroa izango»

ZAKILIXUT

© Olariagak

